



2020ko Euskaraldiaren ikerketa

1. ZATIA: EUSKARALDIAN PARTE-HARTZEA TXOSTEN LABURTUA


Siadeco^x
ikerketa aplikatua

Berio pasealekua 11, 20018 Donostia
943 31 00 34
siadeco@siadeco.eus



Aurkibidea

1. Ikerketaren aurkezpena	3.
2. Euskaraldia zenbakitan.....	7.
2.1. Norbanakoen parte-hartzea	8.
2.2. Entitateen parte-hartzea	17.



1.

Ikerketaren aurkezpena.

2020ko Euskaraldia dinamika aztertzea du helburu ikerketa honek, eta horretarako hiru ikerketa-ildo zehaztu dituzte Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika sailak, Nafarroako Gobernuaren Herritarrekiko Harremanetako departamentuak eta Euskararen Erakunde Publikoak.

Txosten laburtu honetan, hain zuzen, Euskaraldiko parte-hartzeari buruzko lehenengo ikerketa-ildoaren gako nagusiak jasotzen dira, norbanakoena eta entitateena.

1. IKERKETA-ILDOA: Euskaraldian parte hartu dutenei buruzko azterketa, norbanakoena eta entitateena.

Helburua: Euskal Herri mailan, Euskaraldian izena eman dutenen eta parte hartu dutenen zenbatekoak (norbanako zein entitate) eta haien ezaugarriak ezagutzeko.

Informazio-iturriak:

- **2020ko Euskaraldiko izen-emateen datu-baseak, norbanakoena eta entitateena.**
Euskaraldiaren bigarren edizioan izena eman duten norbanakoen eta entitateen datu-oinarria erabili da unibertsoaren azterketa egiteko. Denera, 178.184 erregistroko datu-basea aztertu da norbanakoen kasuan, eta 8.309koa entitateenean.
- **Euskaraldiaren aurretik ikerketarako unibertsoa osatu nahi zutenek betetako galdetegia.**
Izen-emateen datu-baseekin batera, ikerketaren unibertsoa osatu nahi zuten norbanakoek Euskaraldiaren aurretik betetako galdetegia ere aztertu da, bereziki, Euskal Herri mailako norbanakoen hizkuntza-ezagutzari eta -erabilerari buruzko azterketa egiteko. Denera, 59.557 erantzun jaso dira.

Oinarrizko hiztegia

Ikerketan erabili diren zenbait terminoren ulermena errazte aldera, zenbait definizio bildu dira segidan.

Ahobizi: ulertzen duten guztiei euskaraz hitz egiten dieten lagunak dira.
(*Euskaraldia, 2018*)

Belarriprest: gutxienez euskaraz ulertzen duten kideak dira, gainontzekoei euskaraz aritzeko gonbidapena luzatzen dietenak.
(*Euskaraldia, 2018*)

Arigunea: Euskaraz lasai aritzeko guneak dira eta euskaraz hitz egiteko aukera bermatzen dute uneoro, izan entitate barruan (barne ariguneak) edo izan entitateak herritarrekin duen harremanean (kanpo ariguneak).
(*Euskaraldia, 2020*)

Herri-batzordeak: Euskaraldiaren herri-batzordea herrian, auzoan edota eskualdean Euskaraldia antolatzeko ardura hartzen duen taldea da.
(Euskaraldia, 2018)

Koordinazio orokorra: koordinazio orokorreko eragileek ariketaren oinarriak eta ekimen masiboaren kronograma zein komunikazio orokorra prestatzen dituzte.
(Euskaraldia, 2018)

Entitateak: Mota guztietako entitateek hartu ahal izango dute parte (erakunde publikoak, gizarte eragileak, enpresak, kooperatibak, kultur eta kirol elkarteak, eta abar), ariguneren bat badute. Entitate batek, era berean, egoitza edo establezimendu bat baino gehiago izan ditzakete.
(Euskaraldia, 2020)

Degurba sailkapena: DEGURBA edo urbanizazio-maila eremu baten izaera adierazten duen sailkapena da. Hiri multzoetan eta hiriguneetan bizi den tokiko biztanleriaren arabera oinarrituta, Tokiko Administrazio Unitateak hiru eremu motatan sailkatzen ditu:

- **Hiriguneak:** Biztanleria dentsitate handiko eremuak. Ziega jarraituan (baita diagonalean ere), gutxienez 1.500 biztanle bizi dira kilometro karratuko, eta 50.000 biztanle baino gehiago denera.
- **Bitarteko hirigunea:** Tarteko dentsitate eremuak. Ziega jarraituan, gutxienez 300 biztanle bizi dira kilometro karratuko, eta 5.000 biztanle baino gehiago denera.
- **Landa-eremua:** biztanle gutxiko eremuak.

(Eurostat, 2011)

Gune soziolinguistikoak: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak lau gune soziolinguistiko ezarri zituen biztanleriaren euskaldunen ehunekoaren arabera. Honako hau da banaketa:

- **Lehen gune soziolinguistikoa.** Biztanleriaren %20 baino gutxiago da euskalduna.
- **Bigarren gune soziolinguistikoa.** Biztanleriaren %20-50 bitartean da euskalduna.
- **Hirugarren gune soziolinguistikoa.** Biztanleriaren %50-80 bitartean da euskalduna.
- **Laugarren gune soziolinguistikoa.** Biztanleriaren %80 edo gehiago da euskalduna.

(VI. Mapa Soziolinguistikoa, 2016)

Etxeke hizkuntza: etxean maizen hitz egiten den hizkuntza
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2010:43)

Lehen hizkuntza: Hautzaroan lehenbizi ikasitako hizkuntza, gero erabiltzen jarraitu dena.
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2010:35)

Hizkuntza-gaitasuna: Hitzun batek hizkuntzaz duen ezagutza-maila. Gaitasun horren bidez, perpausak sortzeko eta ulertzeko gai da hitzuna, baita perpaus bat gramatikala den edo ez den ebazteko ere.
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2010:49)

Hizkuntza-jokabidea: hizkuntza-hautua.
(Euskaraldia, 2018)

Hizkuntza gaitasun erlatiboa: Elebidunak hiru multzotan bereiz daitezke, euskaraz edo erdaraz hitz egiteko daukaten erraztasun handiagoaren edo txikiagoaren arabera.

- Euskal elebidunak, euskaraz erdaraz baino errazago moldatzen direnak.
- Elebidun orekatuak, berdin moldatzen direnak euskaraz zein erdaraz.
- Erdal elebidunak, erdaraz hobeto moldatzen direnak euskaraz baino. 11.

(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2013:25).


Euskalduna (elebiduna): euskara ondo edo nahiko ondo ulertzeko eta hitz egiteko gai da.

(VI. Inkesta soziolinguistikoa, 2016).

Euskaldun hartzailea edo ia-euskalduna: ez da euskaraz ondo edo nahiko ondo hitz egiteko gai. Hala ere, badu euskararen nolabaiteko ezagutza. Zehazki, multzo honetan sartzen da honako baldintza hauetakoren bat gutxienez betetzen duena:

- Euskaraz "zertxobait" ulertzeko eta hitz egiteko gai da.
- Euskaraz "ondo" edo "nahiko ondo" ulertzeko gai da.

(IV. Inkesta soziolinguistikoa, 2016).



2.

Euskaraldia zenbakitan.


2.1. NORBANAKOEN PARTE-HARTZEA.

1). 178.184 norbanakok eman dute izena; 2018an baino gutxiago izan dira.

Euskal Herri osoan, denera, 178.184 norbanakok parte hartu dute Euskaraldiaren bigarren edizioan. Lurraldeka, Gipuzkoa eta Bizkaia dira parte-hartzaile kopuruan ekarpen kuantitatibo handiena egin dutenak: hamar parte-hartzailetik ia zortzi gipuzkoarrak edo bizkaitarrak dira (% 78,2).

1. mapa

Euskaraldian izena eman duten norbanakoen kopurua lurraldeka




Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

Hartutako rolaen arabera, 137.348k ahobizi rola hartu dute (% 77,1), eta 40.836 izan dira belarriprest (% 22,9).

1. grafikoa

2020ko eta 2018ko parte-hartzaileak rolaren arabera (kop.)



Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

2018ko datuekin alderatuta, lehen edizioan baino ia 47.000 lagun gutxiago izan dira (% 20,9 gutxiago). Oro har, Nafarroa da izen-emate kopuruetan jaitsiera txikiena izan duena, eta beste muturrean dago Iparraldea.

2018ko datuekiko belarripresten herena gutxiago izan da aurten, eta % 16,1 ahobizi gutxiago. Dena den, erakartzen ere jakin du: bost parte-hartzaitik batek lehen aldiz eman du izena Euskaraldian EAEn eta Nafarroan. Belarripresten artean, lehen aldiz izena eman dutenak gehiago izan dira: belarripresten laurden batek ez zuen izenik eman 2018ko edizioan.

1. taula

2018ko eta 2020ko Euskaraldiko parte-hartzaileak, lurraldearen eta rolaen arabera alderatuta

		Ahobizi		Belarriprest		Guztira		Aldea 2018-2020
		2018	2020	2018	2020	2018	2020	
Araba	Kop.	12.896	10.264	7.383	4.793	20.279	15.057	-5.222
	%	7,9	7,5	12,1	11,7	9,0	8,5	-25,8
Gipuzkoa	Kop.	75.716	64.214	20.806	13.886	96.522	78.100	-18.422
	%	46,2	46,8	34,0	34,0	42,9	43,8	-19,1
Nafarroa	Kop.	16.007	14.948	6.327	4.591	22.334	19.539	-2.795
	%	9,8	10,9	10,3	11,2	9,9	11,0	-12,5
Bizkaia	Kop.	55.025	44.842	25.011	16.385	80.036	61.227	-18.809
	%	33,6	32,6	40,8	40,1	35,5	34,4	-23,5
Lapurdi	Kop.	3.030	2.064	1.357	742	4.387	2.806	-1.581
	%	1,8	1,5	2,2	1,8	1,9	1,6	-36,0
Nafarroa Beherea	Kop.	1.065	633	286	141	1.351	774	-577
	%	0,6	0,5	0,5	0,3	0,6	0,4	-42,7
Zuberoa	Kop.	188	137	57	42	245	179	-66
	%	0,1	0,1	0,1	0,1	0,1	0,1	-26,9
Diaspora	Kop.	0	246	0	256	0	502	502
	%	0,0	0,2	0,0	0,6	0,0	0,3	100,0
Guztira	Kop.	163.927	137.348	61.227	40.836	225.154	178.184	-46.970
	%	100,0	100,0	100,0	100,0	100	100,0	-20,9

Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.


2). 2020ko Euskaraldiak Gipuzkoako eta Nafarroako euskaldun eta euskaldun hartzailen artean izan du arrakasta gehien.

Euskaraldian izena emateko bi baldintza bete behar dituzte Euskal Herriko norbanakoek: 16 urtetik gora edukitzea eta euskara, gutxienez, ulertzeko gai izatea. 2016ko inkesta soziolinguistikoaren arabera, bi baldintza horiek betetzen dituzten 1.175.931 herritar daude Euskal Herrian, horiek osatzen dute, hain zuzen, Euskaraldiaren unibertso potentziala.

Hortaz, izena emateko moduan daudenen artean % 15,1ek eman dute izena Euskaraldiaren bigarren edizioan. Hain zuzen, Gipuzkoan eta Nafarroan izan du arrakasta gehien: bi lurraldeak Euskal Herriko datuaren gainetik daude (% 19,1 eta % 15,9, hurrenez hurren).

2. grafikoa

2020ko Euskaraldiko parte-hartzaileak unibertso potentzialarekiko, lurraldearen arabera (%)



Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

Adinaren arabera, oro har, 35 eta 64 urte bitartekoen artean zabaldu da gehien; EAEko hiru lurraldeetan bereziki. Era berean, Nafarroako, eta Nafarroa Behereko eta Lapurdiko 25 eta 34 urte bitartekoen artean izandako arrakasta-maila esanguratsua da.

Generoari dagokionez, aldiz, emakumezkoen artean izan du hedadura handiena Euskaraldiak, bereziki, Gipuzkoan, Araban eta Nafarroan.


3). 30-44 urteko emakumea eta gipuzkoarra izan da nagusitu den parte-hartzailearen profila.

Aurreko edizioan bezalaxe, 2020ko Euskaraldian 30-44 urteko emakume gipuzkoarra izan da nagusitu den parte-hartzailearen profila.

Gipuzkoa izan da ariketan pisu handiena izan duena: bertan izan du arrakasta handiena ariketa sozialak, eta bertakoa da parte-hartzaileen hamarretik lau baino gehiago. Adinari dagokionez, lurralde guztietan nagusitu da 30-44 urteko tartea. Adin-tarte gazteenen pisua esanguratsua da, bereziki, Iparraldean, Nafarroan eta Araban.

3. grafikoa

2020ko Euskaraldiko parte-hartzaileen banaketa adinaren arabera (%)



Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

Hala ere, emakumeen nagusitasuna da argiena: emakumezkoak dira parte-hartzaileen bi heren. Lurralde guztietan oso parekoa da proportzioa, baita rolen arabera ere.


Dena den, ez da beti horrela izan. Diasporan, emakumezkoak eta gizonezkoak ia parekatuta daude, nahiz eta emakumezkoak gehiago diren. Eta generoen arteko aldeak txikiagoak dira 60 urtetik gora. Nafarroan esanguratsua da gazteenen artean emakumezkoak bikoitza direla.

4). Inguru euskaldunenek sortzen dituzte ahobizi gehien; hiriguneek, aldiz, belarriprestak.

Euskaraldiaren bigarren edizioko parte-hartzaileetatik, ahobizi rola hartu dute % 77,1ek – % 77,3 EAEn – eta belarriprest izan da % 22,9 – % 22,7, EAEn –. Hortaz, rolen arteko aldeak handitu egin dira Euskaraldiaren bigarren edizioan, eta horrekin batera, ahobizi rolak izen-emateetan duen nagusitasuna berretsi bakarrik ez, handitu ere egin da. Alde txikiak daude lurraldeen arabera, baina norabide berean doaz: zenbat eta euskaldunagoa ingurua, orduan eta altuagoa da ahobizien kopurua. Gipuzkoa eta Nafarroa Beherea dira, hain zuzen, joera horren adierazle.

4. grafikoa


2020ko Euskaraldiko parte-hartzaileak lurraldeka, rol bakoitzaren proportzioaren arabera (%)



Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

Gauza bera gertatzen da ahobizi eta belarriprest proportzioak eskualdeka aztertzen badira; salbuespenak salbuespen, euskaldunen dentsitate handieneko eskualdeek eta ahobizi proportzio handienekoek bat egiten dute: Lea-Artibai Bizkaian, Urola Kosta Gipuzkoan, Iholdi-Oztibarre Nafarroa Beherean, Larraun-Leitzaldea Nafarroan...

Ahobizien proportzioa eskualdeka (%)




Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

EAE eta Nafarroako kasuan, parte-hartzaileak gune soziolinguistikoaren arabera aztertu ahal izan dira. Kasu horretan, joera are argiagoa da: zenbat eta herri euskaldunagoa, orduan eta altuagoa da ahobizien proportzioa eta baxuagoa, aldiz, belarriprestena. Nahiz eta kasu guztietan ahobizien proportzioa altuagoa izan.

Antzekoa gertatzen da adin-tarteka ere, oraingoan euskararen ezagutzari eta gaitasunari loturik: adinean gora egin ahala, gaitasuna jaitsi egiten da, eta belarripresten proportzioa ere gora doa, edo beste modu batera esanda, gero eta gazteagoa, euskaldunagoa eta beraz, ahobiziagoa.

5. grafikoa

2020ko Euskaraldiko ahobizi eta belarripresten proportzioak adin-tarteka (%)




Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

Ahobizien kopuruak Gipuzkoako herri euskaldunetatik edaten badu, belarripresten kopuruari hiriguneak eta Arabak eta Bizkaiak egiten diote ekarpen handiena: hirigunean sortzen da belarripresten ia erdia. Hain zuzen, 2018arekin alderatuta, bertako parte-hartzaileak izan dira bigarren edizioan gutxiago aktibatut direnak: hiriburukoak eta Arabakoak.

6. grafikoa

2020ko Euskaraldiko parte-hartzaileak urbanizazio-mailaren arabera (%)




Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

5). Euskaldun osoak dira Euskaraldiko parte-hartzaile gehien-gehienak.

2020ko Euskaraldian parte hartu duten ia guztiak dira euskara ongi edo nahiko ongi ulertzeko gai (% 96,1). Horietatik, % 89,5 euskaldunak dira eta % 10,5 euskaldun hartzaileak. 2018ko edizioarekin alderatuta, zertxobait baxuagoa izan da parte-hartzaileen euskara-gaitasuna.

7. grafikoa

Euskara ongi edo nahiko ongi ulertzen eta hitz egiten duten 2020ko eta 2018ko Euskaraldiko parte-hartzaileak (%)



Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

Gaitasun erlatiboari dagokionez, ongi edo nahiko ongi hitz egiten dutenen artean, bostetik ia bik (ia % 40) euskaraz zein erdaraz, bietan berdin egiten dute.

Aldiz, lehen hizkuntzari erreparatuz gero, parte-hartzaileen % 44,3k euskara du lehen hizkuntza, % 19,6k biak, % 36,1ek gaztelania edo frantsesa eta % 1,1ek, beste hizkuntza bat. Ahobizien kasuan, lehen hizkuntza euskara dutenen ehunekoa are handiagoa da (% 51,5); belarripresten artean, berriz, gehienek (% 70) gaztelania edo frantsesa dute lehen hizkuntza.

Euskaraldiko parte-hartzaileen artean euskaldun osoek duten pisua gizartean dutenaren gainetik dago; eta alderantziz, euskaldun hartzaileek duten pisua gizartean dutena baino baxuagoa. Hau da, Euskaraldian izena eman dutenak euskaldunagoak dira gizartea baino.


2.2. ENTITATEEN PARTE-HARTZEA.

1). **8.309 egoitzek eman dute izena eta 24.363 arigune sortu dituzte.**

Euskal Herri osoan, denera, 8.309 egoitzek eman dute izena. Gipuzkoa da egoitza kopuru altuena izan duen probintzia (3.798 egoitza), eta jarraian dago Bizkaia (2.854 egoitza).

3. mapa

Euskaraldian izena eman duten egoitzen kopurua lurraldeka




Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

Egoitza horiek ariguneak edo euskaraz lasai aritzeko guneak sortu dituzte ariketa modu kolektiboan egiteko; hain zuzen, 24.363 arigune sortu dira Euskal Herri osoan: 12.288 kanpo-arigune (% 50,4) eta 12.075 barne-arigune (% 49,6).

8. grafikoa

Euskaraldian izena eman duten entitateek sortutako ariguneak, motaren arabera (%)




Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

Sortutako ariguneen lurralde-banaketak bat egiten du egoitzen banaketarekin; beraz, Gipuzkoan sortu da arigune gehien (% 49,0), eta jarraian dago Bizkaia (% 33,2).

9. grafikoa

Euskaraldian izena eman duten entitateek sortutako ariguneak, motaren eta lurraldearen arabera (%)




Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

Datu hauetan sakonduz, Gipuzkoako herri euskaldunetako eta nahiko euskaldunetako zerbitzu establezimendu txikietan lortu du Euskaraldiak hedadurarik handiena.

Ipar Euskal Herrian, aldiz, hedadura mugatua izan du. Bertan, parte-hartze handiena Nafarroa Beherean eman da, zerbitzu-establezimenduen pisu esanguratsu batekin, kontuan hartuta landa-eremuko lurraldea dela, hein handi batean.

4. mapa

Euskaraldian izena eman duten egoitzen kopurua eskualdeka



Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

2). **Zenbat eta euskaldunagoa izan ingurua, orduan eta pisu handiagoa izan du establezimendu eta zerbitzu txikien parte-hartzeak.**


Oro har, establezimendu eta zerbitzu-emaile txikiak nagusitu dira 2020ko Euskaraldian izena eman duten entitateen artean, egoitza guztien % 34,2 mota honetakoak dira, eta bereziki nagusitu dira Gipuzkoan eta Nafarroan.

Datuei erreparatuz, zenbat eta euskaldunagoa izan ingurua, orduan eta pisu handiagoa hartzen dute zerbitzu txikiak. Aldiz, zenbat eta erdaldunagoa izan, orduan eta pisu handiagoa hartu dute hezkuntza arloko egoitzek —Arabian edo Nafarroako eremu misto eta ez euskaldunear, edo Lapurdin, adibidez—.

Nafarroako inguru euskaldunenetan eta Zuberoan, aldiz, administrazio publikoaren —udal txikien— pisua oso altua da.

10. grafikoa

Euskaraldian izena eman duten entitateen egoitzak, entitate-motaren eta lurraldearen arabera (%)



Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.

3). **Ingurua ez da hain erabakigarria izan arigune-motei dagokionean; gehiago eragin du entitatearen jardunak.**


Kanpo- edo barne-ariguneak sortu, entitate-mota bakoitzaren araberakoa izan da eta lurraldeen araberako aldeak oso txikiak izan dira.

- **Kanpo-ariguneak** sortu dituzte establezimendu, enpresa txikiek eta zerbitzu-enpresek. Baita administrazio publikoak ere, Gipuzkoa ez den gainontzeko lurraldeetan.
- **Barne-ariguneak** sortu dituzte gizarte mugimenduek, eragileek, sindikatuek eta elkarteek, hezkuntzako eragileek eta Gipuzkoako administrazio-publikoak.

Bestalde, hedabideean kasuan nahiko parekoa da lurralde guztietan sortutako arigune-moten kopurua. Eta industrian, aldiz, lurraldearen araberakoa izan da aldea: EAEn eta Iparraldean barne-ariguneak sortzeko joera izan dute; Nafarroan, aldiz, kanpo-ariguneak sortzekoa.

11. grafikoa

Euskaraldian izena eman duten entitateek sortutako ariguneak, entitate-motaren arabera (%)



Iturria: Euskaraldia, 2020. Siadecok landua.